Firmante: IRUNGO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IRUN
Emisor: IZENPE
Fecha:10/07/2023 9:03:04

2023ZAUN0006

ESKOLA BIDEA DINAMIZATZEKO, KUDEATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO LANAK. 2023-2024 IKASTURTEA

TRABAJOS DE DINAMIZACIÓN, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DEL CAMINO ESCOLAR. CURSO 2023-2024

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	MUGIKORTASUN, BIDE PUBLIKO ETA OBRA ARLOA / AREA DE MOVILIDAD, VIA PUBLICA Y OBRAS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2023ZAUN0006

1. XEDEA

Baldintza teknikoen plegu honen xedea da zehaztea zer lan hartuko dituen barnean eta zer baldintza bete beharko dituen 2023-2024 ikasturtean Eskola Bidea programa dinamizatzeko eta kudeatzeko eta beronen jarraipena egiteko lanen kontratazioak.

Era berean, kontratazioaren helburua da enpresa edo profesional gaitu bat kontratatzea, Irungo Udalari 2023-2024 ikasturtean Eskola Bidea programa dinamizatzeko, behar bezala aurrera eramateko eta abiarazteko eta beronen jarraipena egiteko laguntza eta aholku emateko eta ikastetxeetan eta beste talde batzuen lokaletan eskolak eta/edo prestakuntza saioak emateko, plegu honen zehaztapenen arabera.

2. ZERBITZUEN ZEHAZTAPENA

2.1. JARDUN EREMUA

Esleipendunak ikastetxe hauekin elkarlanean egin beharko ditu dinamizazio lanak:

- Dunboa LHI
- Elatzeta LHI
- Eguzkitza LHI
- Irungo La Salle LHI
- Belaskoenea L.H.

Indarraldiaren barruan, kontratuan sartu ahal izango dira beste ikastetxe batzuk, betiere Udalak eta zentroak berak bideragarri eta egoki irizten badiote, eta beste kolektibo

1.- OBJETO

El objeto de este Pliego de Prescripciones Técnicas es definir el alcance y condiciones que habrán de regir para la contratación de los servicios dinamización, gestión y seguimiento del Programa de Camino Escolar para el curso 2023-2024.

El servicio a contratar tiene como finalidad la contratación de una empresa o de un/a profesional cualificado/a que realice las labores de colaboración, asesoramiento al Ayuntamiento de Irun, docencia en las clases y/o sesiones formativas en diferentes centros escolares así como en diferentes locales de otros colectivos para la dinamización, buen desarrollo, puesta en marcha y seguimiento del proyecto de Camino Escolar, con arreglo a las especificaciones técnicas del presente Pliego.

2.- DEFINICIÓN DEL SERVICIO.

2.1.- ÁMBITO DE ACTUACIÓN

La empresa adjudicataria deberá realizar los trabajos de dinamización colaborando con los siguientes centros escolares:

- Dunboa.L.H.
- Elatzeta LH.
- Eguzkitza L.H.
- Irungo La Salle L.H..
- Belaskoenea L.H.

Durante su vigencia podrán integrarse en el contrato, aquellos nuevos centros escolares siempre que el Ayuntamiento y el propio centro lo consideren viable y oportuno, así como otros

batzuk ere bai, hala nola, dauden auzoetako ikastetxeetako zuzendaritza, IGEak, irakasleak, auzo-elkarteak, eta abar, Udalak beharrezko ikusten badu programa berezi bat egitea Eskola Bidearen proiektua ezagutzera emateko.

colectivos como dirección, AMPAS, profesorado, asociaciones de vecinos, etc. de los diferentes centros escolares y barrios en los que se ubiquen, para los que desde el Ayuntamiento se estime necesario realizar un programa especial con objeto de dar a conocer el proyecto del Camino Escolar.

2.2. EGITEKOEN ZEHAZTAPENA

Eginkizun hauek aurreikusten dira:

- Dagozkion lanak egitea, Irungo Udalak edo Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoko eta Hezkuntzako sailek bideko hezkuntzaren inguruko gaietan ematen dituzten gidalerroen ildotik

- Proiektua koordinatzeko eta kudeatzeko lanen barruan, inplikatuekiko informazio eta koordinazio bileretara deitzea eta horrelakoetan pertsonalki parte hartzea; hezkuntza komunitatearen mugikortasunaren diagnostikoa eta ikastetxe bakoitzaren ingurukoarena egitea; ekintza plana diseinatzea; hezkuntza komunitateak eskola bidearen barruko ibilbideez informatzeko, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko eta beraiek abiarazteko jarduerak proposatzea; egiten diren jardueretan laguntzea; eta osatzen diren ibilbideak ikuskatzea

- Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egitea (behin ibilbideak martxan jarritakoan haien funtzionamendua egiaztatzea, ibilbideak behar bezala egiteko eta helburuak lortzeko beharrezkoak diren izapideak egitea eta Eskola Bidea programaren helburuak lortzeko ekintza eta jarduera berrien beharra baloratzea)

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasgeletan eta mugikortasun seguruan hezten diren taldeen (zuzendaritzen, guraso elkarteen, irakasleen, auzo elkarteen...) lokaletan sentsibilizazio saioak egitea, Eskola Bidearen oinarriak, onurak eta helburuak ezagutarazteko –ekintza planaren eta ikastetxe bakoitzaren prestasunaren araberakoa izango da saio kopurua–

- Dokumentazioa prestatzea, aktak idaztea eta ikastetxeetan egiten diren lanen txostenak

2.2.- DEFINICIÓN DE LAS TAREAS

Se contemplan las siguientes tareas:

- Llevar a cabo los correspondientes trabajos dentro de una coherencia con las directrices que en materia de Educación Vial emanen del Ayuntamiento de Irun o de los Departamentos de Interior y Educación del Gobierno Vasco.

- Dentro de la coordinación y gestión del proyecto convocará y acudirá personalmente o vía on-line a las diferentes reuniones informativas y de coordinación con las partes implicadas, realizará un diagnóstico de la movilidad de la comunidad educativa y del entorno del centro escolar, diseñará el plan de acción y propondrá diferentes actividades a desarrollar por parte de la comunidad educativa para la información, sensibilización, concienciación y puesta en marcha de los itinerarios dentro del camino escolar, contando con su presencia como apoyo en las diferentes actividades que se vayan a desarrollar y llevando a cabo la supervisión de los itinerarios a realizar.

- Seguimiento y evaluación del desarrollo del proyecto. Comprobará el funcionamiento de los itinerarios después de la puesta en marcha, realizando las gestiones necesarias para el buen desarrollo de los itinerarios y logro de los objetivos. Se valorará la necesidad de nuevas acciones y actuaciones para lograr los objetivos del Camino Escolar.

- Llevar a cabo sesiones de sensibilización en las propias aulas de los diferentes centros escolares de educación primaria, o en los diferentes colectivos objeto de educación para la movilidad segura (dirección, AMPAS, profesorado, asociaciones de vecinos, etc.), con el objeto de dar a conocer los fundamentos, beneficios y objetivos del Camino Escolar. El número de sesiones se realizará en función del plan de acción y la disponibilidad de cada centro.

- Preparación de documentación, redacción de actas, informes de las tareas realizadas en la

egitea

escuela.

- Ekaineko azken astean, dagokion ikasturteko irailetik aurrera ikastetxe bakoitzean egindako jardueren garapenari buruzko memoria orokorra emango dio Irungo Udalari. Ikastetxe bakoitzaren emaitzak aurreko urteetakoekin erkatuko dira, eskola-bidearen proiektua aurretik abian zegoen ikastetxeetan.

- Durante la última semana de junio entregará para el Ayuntamiento de Irun, una Memoria global del desarrollo de las actividades llevadas a cabo en cada uno de los centros escolares en los que se haya trabajado desde el anterior mes de septiembre del correspondiente curso escolar. Se cotejarán los resultados para cada centro respecto de los de años anteriores en aquellos centros en los que el proyecto de camino escolar ya estuviera en marcha con anterioridad.

2.3. ZERBITZUAK EGITEKO ERREFERENTZIAZKO ORDUTEGIA ETA LEKUA

Kontratatzen den enpresa edo profesionalaren ordutegia eskola orduetara egokituko da ikastetxe barruko laguntza jarduerak egiteko. Beste lantalde batzuekiko jardueren kasuan, berriz, eskola orduetatik kanpo egingo dira, honela banatuta:

a) Eskolan bertan egongo da eta ikasgela barruko sentsibilizazio jarduerak eskola orduetan gauzatuko ditu, ikastetxe bakoitzak ezartzen denaren arabera.
b) Lantalde bakoitzarekin egin beharreko gainerako zereginak edo kontratu honek bere gain hartzen dituen betebeharrak planifikatzeko eta lantzeko zereginak eskola orduetan zein eskola orduetatik kanpo egingo dira, bai era presentzialean bai online modalitatean.

Ahal denean, jarduerak in situ egingo dira ikastetxe bakoitzak ikasgeletan eta eskola-garaian planteatutako ibilbideetan, bai eta auzo-elkarteen lokaletan, udal-instalazioetan eta eskola-bidea ezartzea bultzatu behar den lekuetan ere.

2.3.- HORARIOS DE REFERENCIA Y UBICACIÓN PARA LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS.

El horario de trabajo de la empresa o profesional contratado se adaptará al escolar para realizar las diferentes actividades de ayuda en los centros escolares, o fuera de él para las actividades con otros grupos de trabajo, repartido de la siguiente forma:

a) Estará presente y llevará a cabo las sesiones de sensibilización en las aulas dentro del horario escolar y según se establezca con cada centro.
b) El resto de tareas a realizar con los diferentes grupos de trabajo, o de planificación y elaboración de las obligaciones del presente contrato se realizarán dentro o fuera del horario escolar, bien de manera presencial o bien vía on-line.

Cuando así sea posible, las actividades se desarrollarán in-situ en los itinerarios planteados por cada centro escolar en las correspondientes aulas y en periodo lectivo, así como en los locales de las Asociaciones de Vecinos, en las instalaciones municipales, y en aquellos lugares donde haya que potenciar la implantación del Camino Escolar.

2.4 ZERBITZUA EMATEKO EGUTEGIA

Zerbitzua dagokion ikasturteko irailaren 1etik ekainaren 30era bitartean emango da.

2.4. CALENDARIO PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO.

El servicio se prestará desde el 1 de septiembre a 30 de junio del curso escolar correspondiente.

3. <u>LANGILEAK</u>

Esleipenduna pertsona juridiko bat bada,

3.- <u>PERSONAL.</u>

En el caso de que la empresa adjudicataria sea

profesional bat jarri beharko du gutxienez programaren zerbitzura, ikastetxe bakoitzarekin elkarlanean ikastetxe bakoitzeko ikasgeletan eta mugikortasun seguruan hezteko Eskola Bidea abiarazten eta mantentzen inplikatzen diren zentroetan eta taldeen baitan esku har dezan eta horretarako aholkularitza eta irakaskuntza lanak egin ditzan.

una persona jurídica, deberá poner a disposición del Programa al menos un/a profesional, que intervenga, en colaboración con los correspondientes centros escolares, en las aulas de los Centros Educativos y en aquellos centros o grupos especialmente sensibles, implicados en la puesta en marcha o mantenimiento del camino escolar como educación para una movilidad segura, realizando tareas de asesoramiento y docencia.

Esleipenduna pertsona fisiko bat bada, zuzenean esku hartu beharko du programan, eta esku hartzea ezingo du beste pertsona baten esku utzi, salbu eta Udalak berariaz baimentzen badio.

En el caso de que la empresa adjudicataria sea una persona física, la intervención en el Programa será llevada a cabo personalmente, no pudiendo delegar en otra persona salvo autorización expresa del Ayuntamiento.

Eskolak emateko arduradunek gutxienez kontratuaren jardun eremuarekin zerikusia duten lizentziatura mailako titulua izan beharko dute; arlo Pedagogiakoa edo Psikopedagogiakoarekin lotura duten ikasketak, hain zuzen ere.

La titulación mínima en el ámbito a que se refiere el contrato para el personal encargado de impartir las clases corresponderá a un nivel de Licenciatura, en ámbitos relacionados a Pedagogía o Psicopedagogía.

Ezinbestekoa izango da eskolak emango dituztenek euskara ahoz eta idatziz jakitea. Horretarako, EGA titulua edo baliokidea aurkeztu beharko dute, Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuaren eta euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzari buruzko otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuaren arabera.

Será imprescindible el dominio hablado y escrito del Euskera por parte de quien o quienes vayan a impartir las clases correspondientes, debiendo acreditarlo mediante la presentación del título EGA o equivalente según Decretos del Gobierno Vasco 64/2.008, de 8 de abril, y 48/2.009, de 24 de febrero, sobre convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera.

Eskola Bidea programa dinamizatzeko eta kudeatzeko eta beronen jarraipena egiteko kontratua betetzerakoan sortzen diren prestakuntza zerbitzu eta programa guztiak, erabiltzen den materiala eta jarduera guztiak Irungo Udalarenak izango dira, esklusiboki, eta administrazio horren logotipo edo markak eraman beharko dituzte; alde horretatik, udal administrazioak onesten ez badu, ez da onartuko inongo marka komertzialen anagramarik.

Todos los programas o servicios formativos, materiales contemplados y cualquier otra actividad que emane del desarrollo del presente contrato del programa de Camino Escolar, serán propiedad exclusiva del Ayuntamiento de Irun, debiendo portar los logotipos o marcas de identidad de esta administración, no admitiéndose el anagrama de ninguna marca comercial no aprobada por la administración municipal.

Kontratu honen aplikaziotik sortzen den publizitate, komunikazio, erreportaje, iragarki eta jarduera orok Irungo Udalaren logotipo edo nortasun marka eraman beharko du, eta elebitan egingo dira; eta, udal administrazioak onestuko ez balu, ez da onartuko inongo marka komertzialen anagramarik.

Cualquier publicidad, comunicación, reportaje, anuncio o cualquier otra actividad que se pueda derivar de la aplicación de este contrato se realizará en euskera y castellano, y portará el logotipo o marca de identidad del Ayuntamiento de Irun, no admitiéndose el anagrama de ninguna marca comercial no aprobada por la administración municipal.

4. GENERO IKUSPEGIA

4.-PERSPECTIVA DE GÉNERO

Enpresa lizitatzaileak, kontratua indarrean

La empresa licitadora, en la ejecución de las

dagoen bitartean deskribatutako zereginak gauzatzean, kontuan hartuko du legediak genero berdintasuna bultzatzeko xedatzen duena. Gainera, hizkuntza eta irudia modu ez-sexistan erabiliko ditu, eta estereotipo sexistarik gabeko materialak sortuko ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dutenak, Irungo Udaleko Berdintasun Planari jarraikiz betiere.

tareas descritas a lo largo de la vigencia del contrato, deberá tener en cuenta lo establecido legalmente para la promoción de la igualdad de género, haciendo un uso no sexista del lenguaje y de la imagen y en su caso, creará materiales libres de estereotipos sexistas y que promueva la igualdad entre mujeres y hombres, siempre de acuerdo a lo establecido en el Plan para la Igualdad del Ayuntamiento de Irun.

5.-ENPRESAREN EDO PERTSONA GAITUAREN PROPOSAMENA ESKOLA BIDEA EZARTZEKO

Arestian aipatutako guztia oinarri hartuta, enpresa edo pertsona esleipendunek, eskatzen zaienean, dagokion Lan eta Metodologia Plana aurkeztuko dute, honako eskema hau kontuan hartuta, ikastetxe bakoitzaren ezarpen-faseen arabera, hau da:

- Orain arte Eskola Bidea programa landu ez duten ikastetxeak
- Aurreko ikasturtean Eskola Bidea programa dinamizatzeko lanen bat egin zuten ikastetxeak
- Aurreko ikasturteetan Eskola Bidea programa abian izan zuten ikastetxeak

Fase horiek kontuan izanik, ikasturtearen araberako lan egitasmo bat hartu beharko du barnean proposamenak, honako hauek aurreikusten dituena gutxienez:

- Inplikatuekiko informazio, koordinazio eta jarraipen bilerak.
- Mugikortasunaren diagnostikoa.
- Ekintza planaren diseinua.
- Egin beharreko jardueren proposamena, Eskola Bidea programaren ezarpen fasearen arabera.
- Inplikatuei eman beharreko eskola, hitzaldi eta saioak.
- Ibilbideen proposamenak, jarraipena eta ikuskapena
- Azterketa, ondorioak eta lortzen diren helburuen balorazioa.

5.-PROPUESTA DE LA EMPRESA O PERSONA CUALIFICADA PARA LA IMPLANTACIÓN DEL PROGRAMA DEL CAMINO ESCOLAR.

Sobre la base de todo lo mencionado anteriormente, las empresas o personas adjudicatarias presentarán en el momento que se le requiera para ello el correspondiente Plan de Trabajo y Metodología teniendo en cuenta el siguiente esquema de acuerdo con las diferentes fases de implantación en las que se encuentre cada centro escolar, esto es:

- Centro escolar en el que no se haya trabajado hasta el momento el Camino Escolar.
- Centro escolar en el que durante el pasado curso ya se haya hecho algún trabajo de dinamización del Camino Escolar.
- Centro escolar en el que ya se haya puesto en marcha en cursos pasados el Camino Escolar.

Por tanto, y de acuerdo con dichas fases la propuesta deberá incluir un plan de trabajo según el calendario del curso escolar como mínimo recoja:

- Reuniones informativas, de coordinación o seguimiento con las diferentes partes implicadas.
- Diagnóstico de la movilidad.
- Diseño del plan de acción a llevar a cabo.
- Propuesta de actividades a desarrollar según la fase de implantación.
- Clases, charlas o sesiones a impartir con las diferentes partes implicadas.
- Propuestas de itinerarios, seguimiento y supervisión.- Análisis, conclusiones y valoración de los objetivos logrados.